



SAISON CULTURELLE

Kultur denboraldia

Théâtre | Musika | Cirque | Dantza

Honako ikuskizun honekin loturiko formakuntza: *Mouche Songe d'une dentelle* (FR)

Eskuhartzaileak: Carole Vergne, Hugo Dayot, koreografoak, sortzaileak eta dantzariak a.a.O
Kolektiboa

Haurrak hainbat arte topaketetaz elikatuz, haien gogoaren pizten parte hartzen dugu parte eta haien loratzea eta autonomia bultzatzen ditugu.

Gure asmoa haurra bere gorputzaz eta bere mugimenduetaz jabe dadin eta ondorioz bere burua hobe ezagut dezan izanik, uste dugu horrela gizartera egokitzea eta egokitzapen hori garatu ahalko duela, bai eta bere emozio adimena azkartzen ahalko duela ere. Jestuaren eta mugimenduaren bidez gonbidatuko zaio haurrari koreografia artea ezagutzera.

Zirrimarra aldi hori igaro eta, haurra bere jestuaz jabetuz, formak sortzen hasten da. Halarik ere, forma horien bereganatze eta ezagutze gaitasuna eraikitze bidean da oraino. Motore aldetik eta kognizio aldetik errepikatze formak ulertaraziz haren adimen sentikor osoari egiten zaio dei. Horrez gain, A4 orria utziz, trazaduraren marrazkia gorputzaren beste gorputz segmentuetan zehar luza dezake eta duen esploratze nahia (motrizitate orokorra) elikatu eta espazioaren nozioa marrazki mugimenduaren bidez ulertu.

Trazatuak gorputzean bizi formatu handi batean marrazki bat marratuz eta espazioan barne oldartuz. Hala dantzak nola marrazkiak dituzten tresnen bidez, haurra engaiatzera, xerkatzera eta ikasteko beste bideak asmatzera laguntzen dugu.

Mouche ou le songe d'une dentelle sorkuntzaren karietara hiru lantegi proposatzen ditugu, elkarrekin edo zein bere aldetik egin litezkeenak. (Jakitera eman nahi dizuegu gure artista eskuhartzea haurra esploratzera eta sentipenaren esperientzia egitera laguntzeko aukera dela. Inolaz ere ez da balioztapen egoera bat baizik eta haurra bere bideratzean eta bere sortze jestuan laguntzea eta ulertze tresnak ematea haurrek beren irudimena eta beren sormena adieraz ditzaten.



SAISON CULTURELLE

Kultur denboraldia
Théâtre | Musika | Cirque | Dantza

Jarraian azaltzen ditugun hiru lantegi horien inguruan proposatzen dizuegu geure eskuhartzea:

- TOPAKETA bat, gure proiektua ulertzeko eta koreografia sorkuntzarekin nola lotu jakiteko.
- JARDUTEA, baliabidea zeharka dezazuen
- TRUKAKETA aldi bat, zure galderari erantzuteko.

2022ko urtarrilaren 5ean, asteazkenarekin
14:00etatik 17:00etara
AIEC aretoan - (Albeniz plazabaratzea - 64250 Kanbo)